

2022/2023 ikasturtean unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan matrikulatutako ikasleak % 0,6 jaitsi dira Euskal AEn

Matrikulatutako ikasleen ia heren batek, 114.000 ikaslek baino gehiagok, Eusko Jaurlaritzaren ikasteko bekak edo laguntzak jaso zituen

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza arautuetan guztira 405.460 matrikula egin ziren 2022/23 ikasturtean Euskal AEn, aurrekoan baino % 0,6 gutxiago, Eustatek landutako datuen arabera.

Bai Haur Hezkuntzak bai Lehen Hezkuntzak azken urteetako beheranzko joera mantendu dute, eta ikasleen jaitsiera % 3,4koa eta % 1,4koa izan dute hurrenez hurren, 2021/22 ikasturtearekin alderatuta. Aitzitik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ia 1.800 ikasle gehiago izan ziren, azken urteotan DBHk izan duen pixkanakako igoerarekin jarraituz, 2007/08 ikasturtetik 20.000 ikasle gehiago izan baititu.

Araubide Bereziko Irakaskuntza guztietan egin dute gora ikasleek, Kirolaren Irakaskuntzetan izan ezik, 300 matrikulatik gora galdu baitzituzten. Horrek adierazten du, termino erlatiboetan, % 28ko jaitsiera aurreko ikasturtearekin alderatuta.

Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak Euskal AEn, irakaskuntza mailaren arabera, zentroaren titulartasunari jarraiki. 2022/23

	Guztira	Publikoa	Pribatua	Aldaketa, aurreko ikasturtearen aldean (%)
GUZTIRA	405.460	226.164	179.296	-0,6
Araubide orokorreko irakaskuntzak	377.251	199.039	178.212	-0,6
Haur-Hezkuntza	73.766	39.630	34.136	-3,4
Lehen Hezkuntza	124.151	64.388	59.763	-1,4
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	88.889	42.035	46.854	2,1
Oinarrizko lanbide heziketa	4.905	1.432	3.473	3,4
Batzilergoa	32.476	15.403	17.073	-0,5
Erdimailako lanbide-heziketa	16.029	10.099	5.930	-1,6
Erdi-mailako LHko espezializazio-ikastaroak	59	37	22	78,8
Golmailako lanbide-heziketa	23.706	13.712	9.994	-0,2
Goi-mailako LHko espezializazio-ikastaroak	254	200	54	130,9
Hezkuntza Berezia	1.686	946	740	3,9
Helduen Hezkuntza	11.330	11.157	173	2,4
Araubide bereziko irakaskuntzak	28.209	27.125	1.084	-0,4
Hizkuntzen irakaskuntzak	23.843	23.843	-	0,4
Musika arte-irakaskuntzak	2.537	1.837	700	1,6
Dantza arte-irakaskuntzak	138	138	-	0,0
Arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntzak	799	541	258	9,8
Kirol irakaskuntzak	829	703	126	-28,0
Arte dramatikoaren irakaskuntza artistikoak	63	63	-	5,0

Data 2024ko Martxoaren 22a

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Ikastetxearen titulartasunari dagokionez, Araubide Orokorreko Irakaskuntzetan ikasleen banaketa egonkor mantendu zen, aurreko ikasturteekin alderatuta. Horrela, ikasleen ia % 53 ikastetxe publikoetan matrikulatu ziren eta % 47k nahiago izan zuten titulartasun pribatuko ikastetxe batean matrikulatu.



Lanbide Heziketaren goranzko bilakaeraren arrazoi nagusia matrikulatutako gizonezkoen kopuruaren igoera da

Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako matrikula-kopuru osoak, espezializazioko ikastaro berriak sartuta, zertxobait behera egin zuen 2022/23 ikasturtean. Zehazki, 133 pertsona gutxiago matrikulatu ziren; hala ere, 40.000 ikasletik gora matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean bezala.

Dena den, Lanbide Heziketaren azken hamabost urteetako bilakaera globala argi eta garbi goranzkoa izan da. Joera hori gizonetan eta emakumeetan izan da, nahiz eta beti izan diren ikasle gizonezko gehiago. 2007/08 ikasturtearekin alderatuta, matrikulatutako gizonen kopuruak % 76,4 egin zuen gora eta matrikulatutako emakumeenak % 34,8.

Bestalde, 2022/23 ikasturtean, Lanbide Heziketako ikasleen banaketa ekitatiboa izan zen STEM (Science, Technology, Engineering and Mathematics) lanbideekin lotutako lanbide-familietak prestakuntza-zikloetan eta esparru zientifiko-tekniko horretakoak ez direnetan. Hala ere, talde horien barruan, sexuen banaketa oso ezberdina izan zen. STEM ikasketetan, esate baterako, genero-arraila oso nabarmena izan zen, emakumeak % 12 baino ez baitziren izan; eta gainerako lanbide-familietan banaketa ez zen hain desorekatua izan, eta hamar matrikulatutatik sei izan ziren emakumeenak. Fenomeno hori ez da 2022/23 ikasturtean bakarrik gertatu, denboran zehar errepikatzen joan da.

Euskal AEn erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak, STEM familia profesionalen eta sexuaren arabera. 2007/08 – 2022/23 ikasturteak




Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Ikastetxe pribatuak izan ziren atzerriko hizkuntzak irakaskuntza-hizkuntza gisa erabiltzearen buruan

Euskal AEko ikasleen % 21,6k atzerriko hizkuntzak erabili zituzten irakaskuntza-hizkuntza gisa. Ikasgairien bat (atzerriko hizkuntzaren ikasgaia bera ez zena) esate baterako ingelesez, frantsesez edo alemanez ikasi zuten ikasleak dira. Ikasteko modalitate hori, batez ere, Lehen Hezkuntzan (% 31,4), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (% 37,1) eta Batxilergoan (% 14,4) eman zen. Gainerako mailetan ezohiko presentzia izan zuen.

Alde handiak ikusi ziren zentroaren izaeraren arabera. Sare pribatuan matrikulatutako ikasleen heren batek euskara eta gaztelania ez ziren beste hizkuntza batean jaso zituen eskolak. Sistema publikoan, berriz, kasuen % 9,4an bakarrik gertatu zen hori. Adierazi behar da datu horietan beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistema emateko baimenduta dauden eta irakaskuntza-hizkuntza gisa herrialde horietako berezko hizkuntzak erabiltzen dituzten atzerriko ikastetxeak daudela.

Euskal AEn unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, atzerriko hizkuntzak irakaskuntzako hizkuntza gisa erabili zituztenak, lurralde historikoaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera (%). 2022/23 ikasturtea



Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Aldeak hain nabarmenak ez diren arren, aztertutako datuetan ezberdintasunak ikusi dira lurraldeen arabera ere. Atzerriko hizkuntzak gehien erabili ziren lurraldea Araba da, eta ondoren Bizkaia. Bi lurralde horietan, gutxi gorabehera ikasleen laurden batek erabili zituen beste hizkuntza batzuk ikasketetan. Gipuzkoan % 16k baino ez.

Eusko Jaurlaritzak 72,7 milioi euro bideratu zituen ikasteko beka eta laguntzetara

Matrikulatutako ikasleen ia heren batek jaso zituen ikasteko bekak edo laguntzak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik, eta hori, zifra absolutuetan 114.000 ikasle baino gehiago dira.

Bekadun ikasleen proportzioa handiagoa izan zen sare publikoan, maila guztietan, matrikulatutakoen artean, erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketan izan ezik. Alde horretatik, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko alderik handiena Lehen Hezkuntzan

gertatu zen. Horrela, ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzan matrikulatutako ikasleen % 48,4k jaso zuten ikasteko beka edo laguntzaren bat, titulartasun pribatuko ikastetxeetan matrikulatu zirenen artan baino ehuneko 24 puntu gehiago.

Beketara bideratutako kopurua 72,7 milioi eurotik gorakoa izan zen, aurreko ikasturtean baino 9 milioi gehiago. Igoera horren zatirik handiena jasangarritasun ekonomikoko neurriak arautu zituen 14/2022 Errege Dekretu Legearen aplikazioaren ondorio zuzena izan zen. Hezkuntzaren arloan, arau horrek 400 euroko zenbatekoa ezarri zuen derrigorrezkoen ondoko ikasketak egiten zituzten deialdi orokorreko beka eta laguntzen onuradun guztientzat. Euskal AEn, zenbateko hori 20.037 pertsonak jaso zuten.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62